

azpeitia | plan 2025 | estrategikoa

GAUR

2016

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaera eman zuela, Udalaren idazkariak,



Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau
"Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa"
dokumentu eguneratuaren espedienteari
dagokiola, eta Udalbatzak **2017ko**
abenduaren 12an egindako bilkuran
behin betiko ~~izateaz onartu~~ zuela,
Udalaren idazkariak,



Enea

 ikertalde

AZPEITIA 2025 GAUR

2016

Sarrera

1

Egungo argazki partekatua

3

1. NOLAKO GIZARTEA DUGU

5

2. NOLAKO HERRI DINAMIKA

12

3. EKONOMIAREN BILAKAERA

18

4. KLIMA ALDAKERI AURRE

25

Egungo beharrei erantzuten

33

5. 2025 URTERA BEGIRAKO IKUSPEGIA ETA XEDEAK

35

6. 2013-2020 EKINTZA PLAN EGUNERATUA

38

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



Azpeitia 2025

Sarrera

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



Azpeitiak 2025 urtera begirako Plan Estrategiko bat du. Berau, 2013an onartu zen eta, orduz geroztik, udal ekintza gidatu duen plangintza tresna erabilgarria izan da, bertan udalerraren lehentasunei heltzeko gauzatu beharreko ekintzak jaso baitziren.

Plana modu partehartzailean osatu zen, herritarren eta udal eta eskualdeko entitateetako teknikariekin eta udal politikarien ikuspegia txertatuz, guztion onura bilatuz, udalerraren garapen eredu berri baten oinarriak finkatu nahian.

Prozesu berezia bezain aberatsa izan zen. Indarrean ziharduen Tokiko Agenda 21eko ingurumen Planari arlo soziala eta ekonomikoa gehitu eta, horrekin batera, izaera estrategikoa eman zitzaion, prozesu berritzaile eta eraginkorra abian jarritz.

Une latzak ziren horiek, krisia gogor astintzen ari zen Azpeitia eta ekonomiaren sustapena eta enpleguaren sorrera momentuko lehentasun nagusiak ziren. Bertan jarri zen indarra eta, udalerriko eragile sozial eta ekonomikoekin batera, krisiari aurre egiteko neurriak definitu eta adostu ziren.

Egoerak hobera egin duen arren, urte hauetan egindako bidea jarraitzeko beharra dago, bi helburu nagusi horietan arreta mantenduz eta sortzen diren behar eta egoera berriei erantzuna emanez.

Testuinguru honetan, Plan Estrategikoa ezinbesteko tresna izaten dihardu baina berau eguneratzea beharrezkotzat jo da, egungo beharretara ahalik eta hobekien egokitze aldera.

Bere garaian egin zen bezala, oraingo honetan ere herritarren, teknikarien eta politikarien ikuspegia ezagutu eta txertatu nahi izan da. Horretarako, lehenengo pausu bezala, udalerraren egungo argazki partekatua osatu da, zeinak 2013tik honantz eman diren aldaketa nagusiak ezagutzeko eta partekatzeko aukera eman duen eta, aldi berean, lehentasunak zehazten lagundu duen.

Herritarrei dagokienez, argazki hura zer esan handia duten gizarte talde ezberdinekin landu da, hala nola, hirugarren adinekoekin, etorkinekin eta gazteekin, horrela, ikuspuntu ezberdin eta osagarriak bilatuz.

Udalerrian eragin handia duten arlo ezberdinen inguruan (kultura, ongizatea, aisialdia, etxebizitza, etab) eztabaidatzeaz gain, bi gai zehatzen inguruko bilera sektorialak ere antolatu dira: tokiko ekonomia eta klima aldaketa.

Horrekin guztiarekin, egungo argazki partekatua osatu eta Azpeitia 2025 Plan Estrategikoaren eguneraketa egin da, datozen urteetara begira udal ekintza gidatuko duen tresna.

Jarraian aurkezten den dokumentua, prozesu honen guztiaren emaitza da.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau
"Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa"
dokumentu eguneratuaren espedienteari
dagokiola, eta Udalbatzak **2017ko**
abenduaren 12an egindako bilkuran
behin betiko onartu zuela.
Udalaren idazkariak,



Egungo

argazki

partekatua

1


Nolako gizartea

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



1.1. SARRERA

Azpeitian 14.675 biztanle bizi dira 2015ean, hau da, eskualdeko biztanleen ia erdia (%47,8); eskualdeko herririk handiena da Azkoitiaren aurretik, zeinak biztanleen %37,7 biltzen duen (11.566). Hauek biak dira hain zuzen ere eskualdeko erreferentziazko bi udalerrak. Biztanleria dentsitatea 211 biztanle km² da, Gipuzkoakoa baino dezente baxuagoa (362 km²). Bilakaerari erreparatuta, azken hamar urtetan Azpeitiko biztanleria %3 hazi da; hazkunde hori pixka bat nabarmenagoa da gizonen artean (%2,8) emakumeen artean baino (%2,4).



Iturria: EIN. Udalerriko errolda (2016)

Biztanleen adinari erreparatuta, Azpeitiko egitura demografikoa Gipuzkoako biztanleriak oro har duen egituraren oso antzekoa da, non biztanleria helduak (35-54 urte) baitu pisurik handiena, baina hirugarren adinak ere (65 urtetik gorakoak) kopuru esanguratsua osatzen baitu.

Azpeitiarrei kezkatzen dizkien gaien artean gizarteko hainbat gizataldek pairatzen duten txirotasun egoera dago. 2014ean Azpeitiko Udalak bultzatutako *Pobrezia, bazterkeria eta premia egoerak* Azpeitian txostenak adierazi bezala, adierazle hori aintzat hartuta, %19,7 dira kaltetuak Azpeitian, hau da, 2.867 pertsona guztira. Kasu honetan, Azpeitia aztertutako Gipuzkoa eta EAE baino egoera hobean dago.



1.2. HIRUGARREN ADINEKO PERTSONAK AZPEITIAN

Zaharkituz doan gizartea

Azpeitiko biztanleriaren %19,6ak 65 urtetik gora du 2015ean, eta %9,3ak 75 urtetik gora, gizatalde horietan emakumeak nagusitzen direlarik. Gipuzkoarekin alderatuz datu horiek pixka bat baxuagoak badira ere, maila berean daudela esan daiteke. Azken hamar urtetako bilakaerari erreparatuta, zahartze zein gain-zahartze indize horiek goranzko joera adierazi dutela ikus daiteke; gainera, azken hogeitun urteetan indarrean egon diren bizi-itxaropen handiagoaren eta jaiotze-tasa baxuen eraginez, Azpeitiko biztanleriak zahartze esanguratsua duela esan daiteke.

Zentzuzkoa da pentsatzea gizatalde hori gero eta kopurutsuagoa izango dela etorkizunean, eta horren ondorioz, gaixotasunaren eraginez menpeko bihurtuko direnekin batera, mendetasun egoeran dauden pertsonak gero eta gizatalde handiagoa osatuko dutela. Egoera horrek eragin izugarria izango du udalak eskaintzen dituen gizarte zerbitzuetan, premia eta, horren ondorioz, eskariak handitu egingo baitira. Ondorioz, premia eta eskari horiei erantzuteko bitartekoak jarri beharko ditu udalak.

Udalak gizatalde horren ikuspegia hainbat esparrutan txertatu beharra sumatu da herritarren kezken artean, gune eta azpiegitura publikoen irisgarritasuna errazteko eta haien premietara egokitzeak. Baita, udalak eskaintzen dituen baliabideek eta zerbitzuek adinduengan arreta berezia jarri behar dutela adierazi dute herritarrek.

Gizarte-mailako zerbitzu eta baliabideen egoera pertsona adinduekiko.

Adineko pertsona kopurua handituz doan heinean, eskaria ere gora doa eta gizarte zerbitzuek horri aurre egiteko eguneko zentroetako plazak nahiz egoitzetako plazak gehitu behar izan dituzte denboran zehar. Horrela, 2003az geroztik ia bikoiztu egin da Azpeitiko eguneko zentroetan eskaintzen den plaza kopurua. Bestalde, plaza kopuru hori 2011n % 3 murriztu bazen ere (aurreko urtearekin alderatuz), Gipuzkoako datua baino altuagoa da (11,33 plaza mila biztanleko Gipuzkoan).

Egoitzetako plazei dagokienaz, azken urteetan hauek ere gora egin dute, %53 hain zuzen ere, 2011n 65 urtetik gorako mila biztanleko 33,01 plaza eskaintzera heldu arte. Datu hau Gipuzkoak agertzen duena baino askoz ere txikiagoa da, Gipuzkoan mila biztanleko 41,91 plaza eskaintzen baitira.



Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbazarak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak, Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA




1.3. ANIZTASUNA AZPEITIAN

Biztanle atzerriarren gorakada azken urteetan

2015. urtean Azpeitiko 983 biztanlek atzerriko nazionalitatea zuten, hau da, biztanleria osoaren %6,6a atzerritarra zen. Biztanleria atzerritar horren bilakaerari erreparatuta, ikus daiteke azken urteetan berebiziko indarra hartzen joan dela; 2003 urtean biztanleriaren %1,83a baino ez zuten osatzen pertsona atzerritarrek, 2015 urterako ehuneko hori %6,56raino igo da, hau da, aldiko ehunekorik altuena. Horrela, ia aldi osoan zehar Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik kokatu bada ere, 2015 urtean Gipuzkoako baliotik oso hurbil kokatu da (%6,56 Azpeitian eta %6,62 Gipuzkoan).

Urteen poderioz pertsona etorkinek geroz eta garrantzi handiagoa hartu dute azpeitiar gizartean, bai Estatu Espainiarrean, Euskal Autonomi Erkidegoan, Gipuzkoan zein udalerrian bertan. Horrela adierazten da **Azpeitian bizi diren etorkinen inguruko azterketa eta diagnostikoan**. Txosten horretan Azpeitiko pertsona atzerriarren egoera aztertu da eta hainbat ondorio atera dira, herritarrek egindako diagnostikoarekin bat datozenak, neurri handi batean. Pertsona atzerriar gehienek prestazio sozialak jasotzen dituzte administrazioetatik zein beste erakundeetatik (CARITAS, Elikagaien bankua...), ez baitute euren bizimodua aurrera eramateko baliabide nahikorik. Bestalde, txostenari jarraiki, pertsona atzerriarren etxeen egoerari erreparatuta, etxebizitzak zaharrak izateaz gain garbitasun hutsuneak dituztela hauteman da, herritarrek egindako diagnostikoarekin bat etorritik.



Iturria: Udalmap

atzerriar gehienek prestazio sozialak jasotzen dituzte administrazioetatik zein beste erakundeetatik (CARITAS, Elikagaien bankua...), ez baitute euren bizimodua aurrera eramateko baliabide nahikorik. Bestalde, txostenari jarraiki, pertsona atzerriarren etxeen egoerari erreparatuta, etxebizitzak zaharrak izateaz gain garbitasun hutsuneak dituztela hauteman da, herritarrek egindako diagnostikoarekin bat etorritik.

Biztanle atzerriarren **generoari** dagokionez, erdia baino gehiago emakumea da aztertutako aldi osoan zehar. **Jatorriari** dagokionez, gehienak Afrikatik datoz, Magrebeko herrietatik batik bat (biztanle atzerriarren herena). Europatik eta Amerikatik datozen biztanle kopuruak berdintsuak dira (% 22,8), Amerikaren kasuan gehienak Hegoaldeko herrietatik datozelarik.






1.4. AZPEITIKO GAZTERIA

Azpeitiko biztanleen herena baino gehiago gazteak dira

Azpeitian biztanleen %38ak, 34 urtetik behera du, eta horien %47,7a emakumezkoak da. Gizatalde horretatik, %44ak 14 urtetik behera du, (haur-indizea), laurden batek 15 eta 24 urteren bitarte eta %31k 25 eta 34 urteren bitarte du. Biztanle osoarekiko pisu erlatiboari dagokionez, bigarren gizatalde handiena osatzen dute gazteek haien %38ekin, 35-64 urteren bitarteko biztanleen atzetik (%43), eta gizatalde nagusien aurretik kokatuz (%20).

Gazteek bizi duten egoera, oro har, latza dela esan daiteke. Gizarte Segurantzako afiliazioa gora badoa ere, okupazio-tasak beheranzko joera adierazten du. Etxebizitzaren aldetik, arazo handiak dituzte gurasoen etxetik emantzipatzeko, eta egoera horretan ez dute udala hurbileko eragiletzat hartzen. Beraz, horrek guztiak gazteen egoerari buruzko gogoeta sakona egitera behartzen gaitu.



Lan merkatua: afiliazioa gora eta okupazio-tasa behera.

Krisi urteetan Segurantzako Diruzaintza Nagusian afiliatutako gazteen kopurua izugarri jaitsi zen (8 puntu t'erdì). Hala ere, joera hori aldatu eta 2015ean igoera adierazgarria nabaritu zen, krisi aurreko urteetako balioak ia erdietsiz. Hala ere, aztertu beharko lirateke sinatutako kontratu horien baldintzak, enplegu horren behin-behinekotasuna nolakoa den jakiteko.

16-24 urte bitarteko gazte azpeitiarren %22,3a lanean ari zen 2015ean. Bilakaerari erreparatuta, gazteen okupazio-tasak beheranzko joera adierazten du aztertutako epean lortutako balio gorenetik geroztik (2001).

Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak.

Etxebizitzari dagokionez, ez da posible izan Azpeitia mailan gazteekin lotutako hainbat adierazleri buruzko informazioa eskuratzea. Hala ere, euskal gazteriaren egungo joerak nondik doazen jakiteko EAE mailako hainbat datu erabil daitezke.

Horrela, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratutako *Biztanle gazteak eta etxebizitza beharra EAE-n* txostenean aipatzen da 18-34 urte bitarteko euskal biztanleen %15ak lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duela. Etxebizitza babestua da gazte gehienek premia hori asetzeko aukeratzen dutena. Bestalde, alokairua da etxebizitza edukitzeko gazteek nahiago duten erregimena. Horrek agerian uzten du merkatu libreko etxebizitza eskuratzeko gazteek dituzten zailtasunak.

Gazteen Euskal Behatokiak egindako estatistiken arabera (azken datuak 2013), 18-34 urte bitarteko gazte gipuzkoarren %45,3a jatorrizko etxebizitzatik kanpo bizi da, hau da, emantzipatu da. Emantzipatutako gazte horietatik %8,3a jabetzako babes ofizialeko etxebizitza batean bizi da; %10,7a, aldiz, alokairu sozialeko etxebizitzatan bizi da. 4 gazte emantzipatuetatik batek adierazi du etxebizitzako gastuak (alokairua, hipoteka, ura, argia,...) ordaintzeko zailtasunak dituela

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak **2017ko abenduaren 12an** egindako bilkuran behin betiko ~~izaeraz onartu~~ ^{onartu} zuela. Udalaren idazkariak,



1.5. ZEINTZUK DIRA ESPARRU HAUETAN DITUGUN ERRONKA NAGUSIAK?

- **Azpeitiko biztanleen bilakaera demografikoak planteatzen duen erronkari ekin behar zaio.** Hau da, etorkizuneko premiak eta eskariak aurreikusi behar dira, eta horretarako beharrezkoa da Azpeitiko biztanleriaren azterketa demografiko sakona egitea. Hortik abiatuta, azterketa horrek agerian utziko dituen premiei eta eskariei erantzuteko osasun eta gizarte-zerbitzu eta baliabide egokiak jarri behar dira eskura, mendetasun egoeran bizi diren azpeitiarrei (pertsona ezinduak eta adinduak) kalitatezko zaintza zerbitzua bermatzeko helburuarekin. Horrek eskatuko du dauden baliabideak ordenatzea eta planifikatzea, udalerriko Gizarte Zerbitzuen mapa osatuz.
- **Pobrezia desagerrarazteko premia.** Datuak ikusita, pobrezia-maila 3. adineko pertsonen artean biztanleriak sumatzen duen bezain kezagarria ez bada ere, badaude herrian egoera larrian dauden pertsonak eta familiak, eta horrek udalaren esku-hartzea eskatzen du. Hortaz, emakume adinduen egoera ahulena da, bizi-itxaropen luzeagoak dakartzan premiak eta bizitzan zehar egindako lan ez ordainduak laga dizkien baliabide mugatuak kontuan hartuta. Horregatik, esku-hartze publiko horrek arreta berezia jarri beharko luke gizatalde horrengan, Udalaren Parekidetasun Planean 3. adineko emakumeen egoera txertatuz.
- **Gizarte mailako zerbitzuak eta baliabideak pertsona adinduen premietara egokitu beharra.** Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuak abian jartzen dituen baliabideak ugariak badira ere, oraindik badago hobetzeko marjina, arreta-mailan batik bat, adinduak baliozko pertsonak direla sentitu araziz eta haien autonomia ahalik eta luzeagoa izan dadila bermatuz. Horretarako, beharrezkoa da gizatalde horren egoera ezagutzea eta identifikatzen diren arazoei erantzuteko baliabide eta neurriak jartzea. Ildo horretan, hirugarren adineko pertsonen zailtasunak edo premiak kontuan hartu beharko lirateke hainbat udal zerbitzuren antolaketan (leihatila bakarrean, adibidez). Azkenik, hainbat baliabide berri jarri beharko lirateke abian, horien artean pisu tutelatuak eta kalitatezko arretarako finantzazio-lerroak aipatu direlarik.
- **Hiri-antolamenduak denon premiak erantzuteko beharra.** Azpeitiko Udaleko Hirigintza saileko helburua da *Azpeitia azpeitiarrentzat ahalik eta egokien eraikitzea; euren beharrak ahalik eta hoberen asetzeko, azpiegiturak ahalik eta eraginkorrenak izateko, eta finean, azpeitiarren bizi-kalitatea hobetzea.* Horrelaxe adierazten du udalak haren web orrialdean. Eta hiri-antolaketa horretan kontuan hartzekoa da pertsona adinduen ikuspegia, espazio publikoa haien premietara egokituz, irisgarritasuna erraztuz eta hainbat baliabide ezarri (eserlekuak, komun publikoak...). Beraz, horrek guztiak dakar ekipamendu eta eraikin publikoen mapa egitea eta horien erabilerak birpentsatzea, herritarrekin batera modu partekatuan.
- **Aisialdia eta zahartze aktiboa sustatzeko baliabideak behar dira.** Udalak eskura jartzen duen aisia eta kirol eskaintzaren diseinuak pertsona adinduen

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau
"Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa"
dokumentu eguneratuaren espedienteari
dagokiola, eta Udaltzatza 2017ko
abenduaren 12an egindako bilkuran
behin betiko izateari onartu zuela.
Udalaren idazkariak,
Azpeitiko Udala

ikuspegia txertatu beharko luke, instalazio propioak, monitore espezializatuak,... aurreikusiz. Bestalde, belaunaldien arteko elkar emanak sustatu beharko lirateke, horrela pertsona adinduen eta gazteen arteko harremana sendotuko bailitzateke.

- **Etorkinen eta baliabide gutxiko familien etxebizitzak baldintzak aztertu behar dira.** *Azpeitian bizi diren etorkinen inguruko azterketa eta diagnostikoak* agerian utzi duenez, gizatalde horiei alokatzen zaizkien etxebizitzek askotan ez dute gutxieneko bizigarritasun baldintzarik betetzen.
- **Etorkinen integrazio lan-ildoan emakume, haur zein nerabeengan arreta berezia jarri beharra.** Jatorrizko herrietako bizi-ohituren eraginez, emakume etorkinen ikasketa-maila oso baxua da eta haien eginkizun nagusia familiaren zaintza da, *Azpeitian bizi diren etorkinen inguruko azterketa eta diagnostikoan* aipatzen den bezala. Ondorioz, bai emakumeak berak bai haren zaintzapean dauden haurrek eta nerabeek gizatalde ahulena osatzen dute, beraz, arreta berezia jarri behar da haiengan.
- **Pertsona etorkinei eskaintzen zaizkien prestakuntzarako aukerak areagotu beharra.** Pertsona etorkin askok ez du ikasketarik, eta duenak zailtasun handiak ditu titulazioa baliagarria izan dadin, baliozkotzea dela eta. Horregatik, zailtasun handiak dituzte lana lortzeko. Beraz, integrazioa lortzeko ezinbestekoa da lana eskuratzeko aukerak gehitzea, eta prestakuntza jasotzea horretarako bitartekoa izan daiteke.
- **Gazte-mugimenduaren eta tokiko-administrazioaren arteko zubiak eraiki behar dira.** Gazteek udala urrutiko zerbait bezala ikusten dute. Gazte mugimenduarekin koordinazioa ahalbidetzeko bide berriak sortu beharko lirateke, eta horretarako abiapuntutzat Ernai taldeak egindako azterketaren ondorioak eta emaitzak hartzea proposatzen da.
- **Etxebizitza-eredu berriaren diseinua modu parte-hartzailean.** EUSTAT-en *Etxebizitzari Buruzko Udal Estatistikaren* emaitzei erreparatuta, Azpeitian etxebizitza familiarren kopuruak goranzko joera izan badu ere, etxebizitza kopurua 1.000 biztanleko erratioak beheranzko joera adierazi du. Horri alokairu-eskaintza urria eta prezio altuak gehitzen badizkiogu, gero eta zailagoa da Azpeitiko gazteentzat gurasoen etxetik emantzipatzea. Beraz, beharrezkoa da Gaur egun Azpeitian abian dagoen Etxebizitza beharrari eta etxebizitza hutsari buruzko ikerketaren emaitzak aztertzea etxebizitza-eredu berria diseinatzeko, gazteen eta familia-eredu berrien premietara egokitua.
- **Aisialdi-eskaintza adin-tarte guztietarako.** Udalak aisialdirako baliabide eta eskaintza ugaria eskura jartzen badu ere, 14-18 adin tartean dauden gazteei zuzendurikoa hutsunea sumatu da. Beraz, aisialdi eskaintza aztertzea eta hobetzea izan beharko litzateke erronketariko bat.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak



2 Hezkuntza eta herri dinamika

2.1. SARRERA



Azpeitiko hezkuntza eta herri dinamikaren inguruan hainbat arlo hartzen dira barnean. Biztanleen zein sektorearen ikuspuntutik, gai nagusien artean kirola, euskara, kultura eta hezkuntza bereizi ditzazkegu, hauek baitira herriaren dinamikan gehien jorratzen diren gaiak edo berba zein eztabaidarako puntuak.

Azpeitia udalerri euskalduna izan arren, hezkuntzaren arloan lanean jarraitu behar da, lehendik ezarrita zegoen planari egokitzapenak eginez eta egin dena mantenduz.

Heziketaren arloan aipatuko genuke Azpeitian lehen hezkuntzan D eredu dela nagusi, aurreko arloarekin lotuz. Bestalde, goi mailako heziketari dagokionez, ohiko aukera tradizionalak aurki daitezke udalerrian, baina hauek modernizatzeko beharra ageri da.

Kulturaren arloan, ekipamendu berri baten eraikitzeak honen erabilera sustatuko duen proiektu edo ekintzen beharra sortu du. Aldi berean, aisialdirako instalazioen egoeraren azterketa bat egin beharra dago.

Azkenik, Azpeitia kirolaren arloan herri aktiboa dela esan genezake, baina biztanleek komunitate bezala bultzatu beharko litzatekeela diote.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak **2017ko abenduaren 12an** egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,




2.2. HEZKUNTZA

Biztanleriaren heziketa-maila areagotzearen beharra


2013an onartutako Planak, gai hau lehentasun handiko lan-ildo bezala identifikatu zuen. 2015eko datuek diotenez, Azpeitian ikasketarik gabeko bizilagunen kopurua %2,1ekoa zen soilik, EAEkoa zein Gipuzkoakoaren azpitik. Bestalde, soilik haur hezkuntza eta lehen hezkuntza egin dutenen kopurua lurraldekoa zein autonomia erkidegokoa baino altuagoa da, eta ondorioz gainontzeko heziketa mailetan, bigarren hezkuntza, erdi-go maila, profesionalak eta goi-mailakoei erreparatuz datuak apur bat baxuagoak dira Gipuzkoa edo EAERekin alderatuz.

Hala ere, 2006 eta 2015. urteen arteko bilakaerari erreparatuta, ikasketarik gabe eta haur hezkuntza bakarrik duten Azpeitiko biztanleriaren batura EAE eta Gipuzkoako balioetara hurbildu dela ikus daiteke.



Iturria: EUSTAT-Hezkuntzari buruzko Udal Estatistika

Matrikulatutako ikasle kopura gorantz doa. Ikasleek aukeraturiko matrikulazio zentroaren jabetzari erreparatuz ikus dezakegu, 2010-2011 ikasturteaz geroztik zentro publikoak gailendu direla, alegia familia gehiagok aukeratu dutelako haien seme-alabak zentro publikoan izena ematea.



Iturria: Eustat. Eskola jardueraren estatistika

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udaltzazak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,

Azpeitiko Udala

Aldi berean, 2014-2015 ikasturtean ikasketa-mailaren arabera matrikulaturiko datuak aztertzen baditugu, ikus daiteke guztira ikasketak eskola publikoan gauzatzen dituzten ikasleak gehiago direla. Aldiz, lehen bi maileri erreparatur, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza, ikus dezakegu joera aldatu egin dela eta gehiago direla pribatura jo duten ikasleak.

Hezkuntza eta hizkuntza elkarrekin lotuz, aipagarria da Azpeitian gaur egun ikasle guztiak D ereduan matrikulaturik daudela. Eskola publikoari erreparatur ikus dezakegu 2004-2005 ikasturteaz geroztik, gutxienez, ikasle guztiak D ereduan matrikulatuak daudela. Aldiz, pribatuaren datuak aztertzen baditugu joera hau 2010-2011 ikasturteaz gerokoa dela esan dezakegu.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,

Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA

2.3. EUSKARA

Azpeitia udalerri euskalduna da.

Euskaldunek %80a baino gehiago suposatzen dute eta hori honela izan da historikoki. Dena den, bilakaerari erreparatur joera beherantz doala ikus daiteke, 1996. urtetik 2011 urtera bitartean euskaldun kopurua ehuneko 4 puntu jaitsi zen, eta maila berean handitu da erdaldunen kopurua.



Iturria: EUSTAT- Biztanleria eta Etxe bizitzen Zentsuak (2011)

	2006	2011	% A 2006-2011
Euskaldunak	85,0%	83,6%	+ % 1,4
Ia-euskaldunak	9,2%	8,0%	- % 1,2
Erdaldunak	5,8%	8,4%	+ % 2,6


Etorkinen aldetik euskara ikastearen garrantzia etorkinaren profilaren arabera dela ikus daiteke. Hau da, Azpeitira denbora mugatu baterako etorri diren etorkinek ez dute hizkuntza ikasteko beharrik sumatzen, oro har. Honek erdaldunen kopurua handitzea dakar, udalerriaren euskalduntasun maila jaitsiz.

Honekin batera, emakume etorkinen kasua aipa dezakegu. Horietako batzuk etxean geratzen dira eta ez dute hizkuntza ikasteko saiakerarik egiten ez asmorik adierazten ere. Dena den, aipagarria da lana bilatu nahi duten unean hizkuntza ez jakiteak oztopo bat suposatzen diela ondorioztatu dela. Hau emakumeak integratzeko arazo gehiago izaten dituzten baieztapenaren adibidetakoa da. Bestalde, badira kasu batzuk non

etorkinak euskara ikasten hasten baitira eta hizkuntzaren jabetza aukera bat dela uste dutenak; izan ere **hizkuntza integrazioa ahalbidetzen duen elementu nagusia da.**

Euskararen eremuan, programak epe luzekoak direnez, aurreko planean aurreikusitako lehentasunak ez dira aldatu. Hau da, jada markaturik dauden bide edo pausoak jarraitu beharko dira, euskararen transmisioa eta erabilera sustatzen jarraituz.

Nahiz eta azken urteetako daturik ez izan, adierazgarria da 2011ko datuek diotenez EAEn euskararen erabilera, gaztelaniarekin alderatuz elebidunen artean, are eta baxuagoa dela adin talde gazteenen artean. Hori honela izanik, euskararen transmisioan zentratzea garrantzitsua da.



Iturria: EUSTAT- Inkesta soziolinguistikoa

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak **2017ko abenduaren 12an** egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



2.4. KULTURA ETA AISIA

Kulturaren kasuan, **aldaketa nagusia Soreasu Antzokiaren lanen amaiera izan da.** Antzoki berri baten sorrerak proiektu berriak ekarri beharko luke itsatsita; prozesu berriak ireki dira Soreasun Sorgune proiektuaren eskutik eta hau kultura mailan erronka da, azpiegitura berri honi nolabaiteko edukia emango dion proiektua eraiki eta koordinatu beharko baita. Gaur egun jada hainbat ikuskizun programatzen dira dantza, zinema zein antzerkiaren arloetan, besteak beste. Adibide gisa Go!azen, gazteei zuzenduriko antzerki emanaldia dugu, edo zine paseak (Soreasu antzokiak berak zein Paradisu Zinemak antolatuak), edo baita Sanagustin kulturaguneak antolaturiko "Idiot Txoul" antzerkia eta Alurra Dantza Taldearen "bi punturen artean".

Aisialdiari dagokionez, ekipamendu eta espazio publiko batzuk hutsik daudela eta beste batzuk egoera kaxkarrean zein irisgarritasun arazoekin dituztela aipatzen da. Bestalde, 3.adinekoen aisialdirako beharretara egokiturik dauden ekipamenduen gabezia dago: ez dago ez instalazio propiorik, ezta monitorerik...

Instalakuntza nagusi bezala estalitako zein estali-gabeko igerilekuak ditugu, udal kiroldegia eta baita kirol gune berria ere, azken hau belar artifizialeko bi zelaiekin (bata 92x46 eta bestea 105x63koa), aldagela eta biltegia izateaz gain teniseko bi pista eta paddleko beste bi pista ere baditu, beste hainbat futbol zelai, pilotaleku eta abarrekin batera.

Aisialdiaren ereduak aldatzen doaz eta honek egungo aukeren modernizazioa behar du, egungo aisialdiak kontsumoarekin lotura handia izanik.

Asteburutako "giroa" galdu dela baieztatzen da eta baita berau berreskuratzeko kezka dagoela ere. Ostalaritza establezimenduei erreparatzen badiegu, bai jatetxeen kopuruak eta baita edaritegienak ere jaitciera izan dute. Bi kasuetan 2008. urtearekin alderatuz 4 establezimendu galdu dira herriko ostalaritza eskaintzan, beraz aurretik aipaturiko baieztapena sektorean islatzen dela esan daiteke.

Aldi berean, nerabeen, 14-18 urte bitarteko gazteen, aisialdira bideraturiko eskaintza gabezia dago. Honetaz gain, gazteen lokalen ordenantza berrindartzeko beharra dagoela ere sumatu da.

2.5. KIROLA

Kirolari dagokionez, **biztanleriaren egoera fisikoa komunitate bezala sustatu eta bultzatu beharko litzatekeela ondorioztatu da.** Hau da, udalerri aktiboa izateko asmoarekin kirola eta osasuna bizitzaren esparru guztietara hedatu beharko lirateke.

Ikus dezakegu Gipuzkoa Kirolak-en datuen arabera, azken lau ikasturteetako eskola kirolean parte hartu duten ikasleen ehunekoa. Ehuneko hau matrikulazioaren arabera izen emanda dauden ikasle kopuruaren gainekoa da eta inguruko herriei bateratzen da eskola kirol nagusien kasuan. Beraz Azpeitia, Azkoitia eta Errezil bateratzen dituen multzoaren kasuan, 2015-2016 ikasturtean areto futbola, saskibaloia eta futbola direla eskolartekoen kirol nagusiak. Honela, partaideen ehunekoak altuagoak dira mutilen kasuan % 77 inguruko parte hartzearekin, nesken kasuan baino % 53 inguru; gainera alebin nesken artean datua baxuagoa da eta aurreko urteetan baino txikiagoa.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren Kultura arloak jasotzen dituen datuen arabera, Gipuzkoan 1.549 Kirol erakunde identifikatzen dira eta horietatik 32 klub Azpeitiarrak dira. Klub hauen artean kirol modalitate ezberdinak jasotzen dira, sokatira, futbola, karate, saskibaloia, gimnastika, atletismoa, judoa, txirrindularitza eta abar luze bat. Beraz kirol aukera handia dago udalerrian.

Kirolaren inguruan plangintza zehatz baten beharra dago, zein aurrekontuetan islatuko dena, orain arte unean uneko ekintzak gauzatzen baitira eta hau ez da nahikoa ikuspegi berri honekin.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,

Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA

2.6. ZEINTZUK DIRA ESPARRU HAUETAN DITUGUN ERRONKA NAGUSIAK?

- **Euskara integrazioarako eta komunikazioarako tresna.** Hizkuntza integrazioa ahalbidetzen duen erreminta nagusia da eta udalak euskara ikasteko erraztasunak eskaintzen ditu, kanpotarren integrazioa bultzatzeko bide gisa, eta ildo horretan jarraitu beharko luke.
- **Lan munduan euskarak presentzia handiagoa izatea.** Aurreko programaren barnean, lan mundua euskararentzat irabaztea azpimarratu eta abian jartzea zen helburua.
- **Prestakuntza-aukerak areagotu eta erraztu beharko lirateke.** Heziketa jasotzeko udalerritik kanpora mugitzeak arazo bat suposatzen du hainbat kasuetan, beraz bertako prestakuntza-aukerak eskuragarriago izan beharko lirateke edo eta mugitzeko erraztasunak eman, beste lekuetara prestakuntza jasotzera desplazatu ahal izateko. Aldi berean prestakuntza arautura sarbide oztopoak ekiditeko, titulazioen baliozkotzeak suposatzen duen arazoa kontutan izatea.
- **Hezkuntzaren arloan udalak gauzatzen dituen ekintza ugarien bateratzea.** Hau da, hezkuntza sail espezifiko bat sortzea, prestakuntzaren inguruan gauzatzen diren ekintza ezberdinak koordinatuko dituen.
- **Gaur egungo premiei erantzungo dion Lan Heziketako eskaintza modernizatuagoa.** Lan Heziketa tradizionalaz haratago, erronka berriei erantzuna emango dien profesionalak prestatzeko hezkuntza eredu eta gai berriak jorratzea.
- **Aisialdirako dauden aukeren inguruan, 14-18 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduriko eskaintzaren analisia egitea.** Gazteen aisialdi ohitura berrien azterketa beharrezkoa litzateke, hauek kontsumoarekin oso lotuta dauden aisialdirako joerak baitituzte.
- **Udalak duen kultur eta kirol eskaintza guztietan hirugarren adineko jendea kontuan hartu.**
- **Espazio publikoaren antolaketan eta elementuen diseinuan eta kokapenean adinduen eta ezinduen beharrak eta ikuspegia kontutan hartu** (bankuen kokapena, itzal-lekuak, komun publikoak...)
- **Kirolaren inguruan plangintza zehatza egitea.** Kirol ekintzak egiten dira, bai, baina unean unekoak dira eta koordinazio falta dute. Kirolaren garrantzia komunitatean zehar bultzatu nahi bada, udalerri aktiboa izateko helburuarekin, koordinazioa behar beharrezkoa da.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela, Udalaren idazkariak,



3 Tokiko ekonomiaren bilakaera

3.1. SARRERA

Nekazaritza eta baserriei lotutako herria izan da historikoki Azpeitia. Azken urteetan gainbehera doan sektorea bada ere, garrantzi handikoa dela ulertzen du Azpeitiko Udalak, eta ondorioz, behar bezalako arreta eskaini eta zaintzeko konpromisoa du. Bestalde, industriak izan du bere garrantzia ere udalerriko ekonomian, aspaldian Balio Erantsi Gordinari ekarpen garrantzitsua egiten baitzion; baina krisi urteez geroztik eta bertako hainbat industria-enpresen itxiera dela eta, industria sektorearen egoera okerrera joan da eta berpizteko ahalegina egin beharko litzateke administrazioen aldetik. Zerbitzu-sektorea, aldiz, hazi den bakarra izan da, eta horrek erronka berriak sortu ditu: belaunaldien arteko erreleboa merkataritzan

Enpleguari erreparatuta, datuen arabera langabezia jaisten ari bada ere, udalak ekin behar dion erronka nagusia langabeziari aurre egiteko baliabideak areagotzea da.

Azkenik, turismoaren arloan aurreko Plan Estrategikoan ezarritako jarduera-ildoak aurrera jarraitzen dute sektorearen garapenerako, baina udalaren ibilbide-orria zehazteko beharra ikusi da, eskualdeko estrategiarekin lerrokatuz.




Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau “Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa” dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak **2017ko abenduaren 12an** egindako, bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



3.2. GARAPEN EKONOMIKOA

Azpeitiko ekonomiaren egitura

2015. urtean 1.283 enpresa-establezimendu zeuden Azpeitian. Enpresa-sarearen bilakaerari erreparatuta, Azpeitiko enpresa sareak 2008 urtean izan zuen establezimendu kopuru handiena eta harrezkero joera beheranzkoa izan da, berreskuratze une txikia izan badu ere 2013an. Hala ere, krisi ekonomikoa hasi zenetik enpresak ixten joan dira, murrizketa $-\%13,9$ koa izan delarik, hau da, guztira 190 establezimendu gutxiago daude 2015 urtean (lehen sektorea kontuan hartu gabe). Hala eta guztiz ere, establezimenduen beherakada hau Gipuzkoak izan duena baino txikiagoa izan da ($-\%16,5$).




Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



Iturria: Jarduera ekonomikoen bilakaera. EUSTAT.

Beherakada honek ez du esan nahi Azpeitian enpresarik sortu ez denik, baina bai krisia hasi denetik itxi den enpresa kopurua sortu diren enpresa berriena baino handiagoa izan dela. Azpeitiko enpresen demografia azterketak agerian uzten du 2015 urtean esaterako, mila biztanleko 6,29 enpresa sortu zirela udalerrian; itxi zen enpresa kopurua, ordea, pixka bat altuagoa izan zen, mila biztanleko 7,52.




Iturria: Udalmap

Egun, Azpeitian, establezimendu kopuruari dagokionez oso nabarmena da zerbitzu sektorearen pisua, Azpeitiko 10 establezimendutatik 7 sektore honetakoak baitira. Gainera, hazi den sektore bakarra da (+%3,9), gainerakoak murriztu diren bitartean.



Iturria: Udalmap

Balio erantsiari dagokionez, egoera erabat aldatu da azken urteetan. Horrela, Azpeitian sortzen den Balio Erantsiaren %55 inguru zerbitzuetatik zetorren 2012an, eta industria sektoreari BEGaren %40 baino ez dagokio. Aztertutako aldiaren hasieran (2000. urtea), ordea, industriak balio Erantsiaren %47,5 biltzen zuen eta zerbitzuek %43,6; izan ere, establezimendu kopuruarekin bezala, zerbitzu-sektorea aldi osoan zehar Balio Erantsi Gordina gehitu duen bakarra izan da.



Iturria: Udalmap

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



Azpeitiarren aberastasun maila murriztuz doa.

Azpeitiarren batez besteko aberastasunaren maila ezagutzeko aproposa da Barne Produktu Gordinaren adierazlea. Horren arabera, agerikoa da 2008 eta 2012 urte bitartean Barne Produktu Gordinak izan duen beherakada: bai EAE-n, bai Gipuzkoan eta bereziki Azpeitian. Hortaz, zentzu honetan, adierazle honek neurtzen duen aberastasunaren beherakadak, agerian uzten du Azpeitiak izan duen gainbehera ekonomikoa beste lurralde-eremuetakoa baino handiagoa izan dela, bai Gipuzkoarekin alderatuz, eta baita erkidego osoarekin alderatzen badugu ere. Are gehiago, Azpeitiko batez besteko BPGak, Gipuzkoako edota EAeko batez bestekoa baino handiagoa izateari laga dio 2012 urtean lehenengo aldiz.

Azpeitiarren batez besteko aberastasun beherakada islatzen duen beste adierazle bat, batez beste, **familia-errentaren bilakaera** da. Ondorengo taulan ikus daitekeenez, 2009 urtean haren gehieneko balioa erdietsi zuenetik behera egin du azpeitiarren errentak, Gipuzkoaren eta EAeren batez bestekoak bikoiztuz.

Generoari dagokionez, Azpeitiko emakumeen errenta %20 txikiagoa da gizonena baino, batez beste, nahiz eta Gipuzkoaren (%23) eta EAeren (%25) batez bestekoz azpitik kokatzen den.

Azterketa **adinaren** arabera eginez gero, adin talde bakoitzak kaltetuen artean duen pisuari erreparatzen bada, argi ikus daiteke, adierazle guztietan, 44 urte beherakoak direla kaltetuen gehiengoa (erdia baino gehiago, kasu guztietan, eta herena kasu batzuetan), ez horrela adin-tarte nagusienak.

Tokiko ekonomiaren garapena sektoreka

Lehen sektorearen arazo nagusia lurzoru falta dela esan daiteke; ez dago lurzoru nahikorik ustiapen berriak osatzeko, eta dauden ustiapenak pertsona adintsuen eskuetan daude eta ez dute saldu nahi. Baserritar adintsu horien jarrerak, ondorioz, arriskuan jartzen du baserrien iraunkortasuna, asko zailtzen baitu belaunaldi arteko erreleboa.

Lehen sektorean lanean ari den langile kopuruen pisu erlatiboak 2006. urtean haren balio txikiena erdietsi bazuen ere, harrezkero pisu horrek gora egin du eta 2015ean hamarkadaren hasierako balioa bikoiztu du.

Zerbitzu sektoreak udalerriko enpresen %70 inguru biltzen du, guztira 903 establezimendu 2015. urtean. Establezimenduen erdia baino gehiago merkataritza, garraio eta ostalaritzari dagokio (%54,3). Ondoren, baina diferentzia handiarekin, jarduera profesionaleko establezimenduak (%16,3) eta bestelako zerbitzuak (%12,5) kokatzen dira. Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasun establezimenduek, jarraitzen diete, establezimenduen %11ekin.

Establezimenduen bizitasuna kontuan hartuta, aipatzekoa da krisi urteetan zehar, sektore honetan ere establezimendu galera garrantzitsua izan dela, 75 establezimendu gutxiago daude egun 2010an baino (-%7,7). Dena den, murrizketa hori Gipuzkoak bere osotasunean jasan duena baino zertxobait txikiagoa da, (-%8,8).

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau
"Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa"
dokumentu eguneratuaren espedienteari
dagokiola, eta Udalbatzirik 2017ko
abenduaren 12an egindako bilkuran
behin betiko izaeraz onartu zuela.
Udalaren idazkariak,

IDAZKARITZA

Azpeitian industria eta eraikuntza sektoreko 289 enpresa daude guztira 2015. urtean, hau da, 2012an baino %16,2 gutxiago; 132 dira industria arlokoak eta 157 eraikuntzakoak. Azpeitiko establezimendu guztien %10,3 eta %12,2 osatzen dute hurrenez hurren.

Industria enpresei dagokienez, manufaktura industria nagusitzen da guztien artean, ia establezimendu guztiak mota honetakoak baitira. Jarduera nagusiak metal-mekanika (enpresa industrialen %42), eta egurra eta altzarigintzarekin (%28) lotutakoak dira.


Krisi ekonomikoak gogor jo du eraikuntza sektorea eta honekin lotutako industria arloko beste hainbat eta hainbat enpresa (horien artean egurra eta altzarigintzarekin lotutakoak, zeinak esan bezala Azpeitian pisu berezia duten). 2010ez geroztik eraikuntzako 76 enpresa gutxiago daude, eta horrek, %32,6ko beherakada bat suposatzen du. Horrela, guztira, 2015ean 157 eraikuntza establezimendu zeuden.

Industria sektoreari dagokionez ere, enpresen itxiera nabarmena izan da eta esan bezala batez ere altzarigintzan eragin du, 2010ez geroztik %17,5eko beherakada izan baita, hots, 28 enpresa gutxiago.

3.3. ENPLEGUA

16 urte eta gehiagoko biztanle azpeitiarren ia erdiak lanean zihardun 2015ean. Tasa hori baxuagoa da emakumeen artean (%45,6); gizonek, aldiz, batez bestekoaren gainetik kokatzen dira (%52,7). Bilakaerari erreparatuta, tasa orokorrak behera egin badu ere, emakumeen okupazio-tasa pixka bat hazi da.

Azpeitiko langabezia tasa %11,9koa da 2015ean, hau da, krisiaren hasierako balioaren ia berdina (2009an indizea %10,8koa zen). Bilakaerari erreparatuta, ikus daiteke indize altuena krisi urte latzenean erdietsi zela (%17,1 2013an); harrezkero, langabezia-indizeak beherazko joera adierazi du.



Iturria: Lanbide


Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



Enpleguaren egoera sektoreka

2015. urtean, 16 urte edo gehiago dituzten azpeitiarren % 60 inguru zerbitzu-sektorean daude okupatuak; beste heren batek industrian dihardu, %7,2k eraikuntza sektorean egiten du lan eta soilik %2 nekazaritza ari da. Bilakaerari erreparatuta, zerbitzu sektorea izan da okupazio maila igoz joan den bakarra; beste sektoreek, aldiz, langileak galdu dituzte azken urteetan.

Langabeziari dagokionez, nekazaritza (%3,5) eta, neurri askoz ere handiagoan, zerbitzuak (%49,7) dira langabezia-tasa gehitu duten sektoreak; industrian eta eraikuntzan, aldiz, langabezia-tasa jaisten hasi da 2014. urtean, balio txikienak 2015ean erdietsiz (%26,9 eta %6,7, hurrenez hurren).



Iturria: Lanbide

Azkenik, lanik gabe dauden pertsonen profilari buruz ondorengo ezaugarriak azpimarra daitezke: langabezia-tasa altuena 30-44 urteren bitarteko pertsonen jasaten dute (%43,3) baina adierazgarria da ere 45 urte eta gehiago duten biztanleen ehunekoa (%41,3); generoaren arabera, langabetu kopuruak nahiko berdintsuak badira ere, emakume gehiago dago lanik gabe Azpeitian; azkenik, ikasketa-mailari dagokionez, titulurik gabeko pertsonen langabetuen %43,4 biltzen dute.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



3.4. ZEINTZUK DIRA ESPARRU HAUETAN DITUGUN ERRONKA NAGUSIAK?

- **Langabeziari aurre egitea erronkarik garrantzitsuena izaten dihardu.** Udalak langabezia-tasa jaisteko bideratzen dituen zerbitzuak indartu eta bultzatzen jarraitu beharko luke krisi aurretiko egoera berreskuratze aldera.
- **Ekonomiaren sustapenaz arduratzen diren entitateak ezagutaraztea.** Herritar askok garapen ekonomikoaren bultzadaz arduratzen diren eskualdeko entitateak ez dituzte ezagutzen edo, ezagutzen badituzte, askotan urruti ikusten dituzte.
- **Etorkizuna Eraikiz GFAko proiektuarekin lerrokatzea.** Eskualdeko sustapen ekonomikorako estrategiak eta lan-ildo nagusiak lurralde mailan landutakoekin bat datoz eta bien arteko lerrokatzea bilatu beharko litzateke sinergiak bilatze aldera.
- **Baserrien mahaiairen dinamizazioa.** Bertako baserrien mahaia sortu da eta mahai hori dinamizatzea eta baserrien elkarteak eratzeko aldeko prozesua bultzatzea dira lehen sektorearen erronka nagusiak.
- **Bertako produktuen bultzada ematen jarraitzea,** Urkome eta Turismo sailarekin elkarlanean, azken urteetan euren artean abiatutako lan-ildoei jarraipena emanez.
- **Nekazari gazteentzako Plana.** Azpeitian ez dago lurzorurik ustiapen berriak eratzeko, eta dauden ustiapenak pertsona adintsuen eskuetan daude eta ez dute saldu nahi. Baserritar adintso horien jarrerak arriskuan jartzen du baserrien iraunkortasuna, asko zailtzen baitu belaunaldien arteko erreleboa; horregatik, nekazari gazteentzako plana beharrezkoa da.
- **Industria 4.0-ren aldeko apustua egiteko beharra.** Adierazitako datuetan ikusi denez, Balio Erantsi Gordinean beherakada adierazgarria eman da Azpeitian Gipuzkoa osoarekin alderatuz, industria-sektoreak bizi izan duen egoerak eraginda: Corrugados, Grumal,... Beraz, garapen ekonomiko mailan erronka industrialari ekin behar dio udalak, lehiakorra eta jasangarria izan dadin (Industria 4.0); horrek, jauzi kualitatibo handia ematea eskatzen du.
- **Azpiegitura industrialei ekin behar.** Azpeitiko azpiegitura industrialak hutsik eta zaharkituta daude, eta horri itenbidea eman behar zaio.
- **Merkataritzaren eremuan belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko beharra.** Lehen sektorean bezala, belaunaldien arteko erreleboa arazoa da merkataritzan ere, merkatarien profila zaharra baita eta gazteek ez baitute merkataritzan interesik; lokal hutsak betetzeko estrategiak abian jartzea egokia bada ere, egun daudenak (eta ondo funtzionatzen dutenak) mantentzeak erronka izan behar du baita ere.
- **Auzoetako merkataritza berpizteko beharra.** Orain arte udaleko plan estrategikoaren lan-lerro gehienak landu dira eta egoera hobetu da, baina Alde Zaharra hartzen zuten ardatz, eta garatu beharreko beste merkataritza esparru batzuk daude Azpeitian, auzoak hain zuzen ere.
- **Turismoaren arloko erronka nagusia udalaren ibilbide-orri zehazteko beharra da,** eskualdeko estrategiarekin modu lerrokatuan.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udaltzaren 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu eta onartu. Udalaren idazkariak,

IDAZKARITZA

4 Klima

aldaketari aurre

4.1. SARRERA

Klima aldaketa mundu mailako arazo larrienetarikoa bat da. Klima Aldaketaren Nazioarteko Aditu Taldearen azken ebaluazio txostenak berresten duenez, **giza ekintzak** eragina izan du planetaren beroketan azken hamarkadetan (IPCC, 2014). Gero eta erronka handiagoa bihurtu da tokiko administrazioentzat. Udalerriek hainbat esparruetan lan egin dezakete **berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko eta aldaketa horretara egokitzeko**.

Udal mailan, mugikortasuna da klima aldaketan eragin handiena duen sektorea. Berau murrizteko oinezkoentzako eta bizikletentzako lekua irabazi eta garraio publikoaren eskaintza areagotzea ezinbestekoak dira.

Tokiko administrazioak ere **zuzenean** eragin dezake **eskari energetikoan**, beren kontsumo energetikoa kudeatuz. Alabaina, **zeharkako** eragina ere izan dezakete, azken erabiltzaileei energia modu eraginkorragoan erabiltzeko informazioa eta motibazioa emanez.

Horretaz gain, tokiko mailan kudeatzen diren beste esparruek ere klima aldaketan eragin zuzena dute, horien artean **hondakinak** daudelarik. Ildo honetan aldaketa garrantzitsuak ematen ari dira azken urteetan, gaikako bilketaren kantitatea eta kalitatea hobetze aldera.

Ekintza hauek guztiek ardura partekatua eskatzen dute, herritarren konpromisoa ezinbestekoa bihurtzen delarik. Hau dela eta, informazioa emateak, gardentasunak eta sentikortze lanak gero eta garrantzi handia dute.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udaltzaz 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko onartu zela. Udaltzaren idazkariak,



4.2. ENERGÍA ETA KLIMA ALDAKETA


Klima aldaketak eragindako inpaktuak herri mailan nabaritzen dira gehienbat. Hau da, hain zuzen, lurraldeari eta herritarren interesei edo kezkei lotutako politika hurbilagoak abian jartzeko maila egokiena.

Bi arlo ezberdintzen dira: berotegi efektuko gasen (BEG) arintzea eta dagoeneko jasan daitezkeen inpaktuen aurrean udalerria egokitzea. Arintzea Plan Estrategikoak jasotzen dituen hainbat ekintzen bitartez lortzen da, gai ezberdinekin lotuta: mugikortasuna, energia, hondakinak,...etab.

Egokitzapena berriz, ez da momentuz lan-ildo nagusi bezala hartu, orokorrean inguruko udalerrietan gertatzen den bezala. Hala ere, klima aldaketak zenbait muturreko gertaeren gogortasuna edo maiztasuna aldatzen duela agerian jarri denez (euri jasena, lehorteen eta bero boladena) ildo honetan ere aurrerapausoak ematea beharrezkotzat jotzen da.

Berotegi efektuko gasen bilakaera eta euren banaketa

Isuri totalen bilakaera ikusita, egoerak hobera egin duela aipatu daiteke, izan ere, 2009tik honantz, %80,8an gutxitu dira. Industriaren isuriak kenduta, isuriak egonkor mantendu dira, beraz, jaitsiera nabarmen horren atzean krisiaren eraginez 2008tik aurrera hainbat enpresen itxiera dagoela azaleratzen da.




Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



Iturria: Azpeitiko Energia Plana (2016)

Hala ere, industria kenduta, BEGen isuriak biztanle kopuruaren arabera neurtuz gero, 2009tik 2014. urtera arte beheranzko joera nabarmena ikus daiteke baita ere, 5,6tik 5 CO₂bt baliora iritsiz, zeina Euskadi mailako udalerrien batez besteko datuarekin bat datorren. Azkeneko urtean berriz, joera horren aldaketa ikusi da, puntu batean bakarrik, baina arretaz jardun beharko litzateke egoera ekonomikoaren hobetzearekin batera isuriak igo ez daitezen lortzeko.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



Iturria: Azpeitiko Energia Plana (2016)

Orokorrean udalerrri guztietan gertatzen den bezala, industria eta lehen sektorea kenduta (bi sektore hauetan udalak ezer gutxi egin dezakeelako) garraioa da BEG-en banaketan pisu gehiago duen sektorea (%64). Jarraian, distantzia askorekin, bizitokiak eta zerbitzuak daude (%15 eta %11), bertan eragina elektrizitatea eta gas naturalaren kontsumoak dutelarik eta, azkenik, hondakinak (%10). Azken hau, sortutako hondakin kopurua, euren sailkapena eta ematen zaien tratamenduaren arabera neurtzen da.

BEROTEGI EFEKTUKO GASEN BANAKETA
INDUSTRIA ETA LEHEN SEKTOREA KENDUTA
(2015)



Iturria: Azpeitiko Energia Plana (2016)

Energiaren eskaera gutxitu, kontsumo eraginkorraren bidean

Azpeitiak urteak daramatza energiaren arloan aurrerapausoak ematen, bai udal ekipamenduetan eta argiteria publikoan, bai beste sektoreetan ere, hala nola, etxebizitzetan, merkataritza edo lehen sektorean, azken hauetan eskualde mailako beste erakundeekin elkarlanean aritzen delarik.

Energiarekin lotutako gaiek garrantzi handia hartu dute azken urteetan eta herritarrek ere horrela adierazi dute. 2012an Gipuzkoako Foru Aldundiak Urola Erdian aurrekontu partehartzaileen lehenengo esperientzia pilotua abian jarri zuen, eskualdeko bizilagunek foru aurrekontuen zati bat zertan gastatu erabaki dezaten. Aukeratu ziren proiektuen artean, eskualdeko energia subiranotasunaren bidean lan egiteari garrantzi handia eman zitzaion eta, hortik abiatuta, energia mahaia sortu eta eskualde mailako energia plan bat egin zen.

Bestalde, Udalak *Alkateen Itinerantz* ekimena sinatu eta, honen ondorioz, 2016an Udal Energia Plana onartu zuen, zeinak udal ekipamendu eta argiteria publikoan arreta jartzen duen. Aldi berean, udal fakturazio energetikoaren kontrola ere nabarmen hobetu da eta honek, fakturen segimendu zorrotza ahalbidetzeaz gain, urteko kontsumoen bilakaera aztertu eta erabakiak hartzen laguntzen du.

Bizitegi-sektoreari dagokionez, GFA-k bultzatutako ARGITU Programan Azpeitiko familiek ere parte hartu zuten. Programa honen helburua etxebizitzetan elektrizitate kontsumo-ohituretan aldaketa txikiak sustatzea izan zen, horretarako kontagailu adimendu bat uzteaz gain, familiei hainbat aholku eta jardunbide onak ematen zitzaizkielarik.

Udalerrian barne eta kanpo mugikortasuna

Berotegi efektuko gasen isurien emaitzak ikusita, garbi dago mugikortasunaren esparruan aldaketa garrantzitsuak egin behar direla jendeak gutxien kutsatzen duten mugikortasun moduak erabil ditzan. Eta ardura ez da bakarrik Udalarena, izan ere, kontutan izanik udalerritik kanpo mugimendu asko egiten direla, esparru honetan udalaz gaindiko politikek eta erabaki instituzionalek ere pisu handia dute.



Garraio publikoaren erabiltzaile kopuruaren igoera eredu paregabea da. Autobus zerbitzua nabarmen hobetu da, batez ere Donostia eta Zarauzko autobus-zerbitzuei dagokienez. Maiztasuna handitu da eta, horren ondorioz, bidaiari kopurua gehitu da eta gehitzen jarraitzen du. Emaitzak ikusita, Bilbo eta Gasteizko ibilbideetan antzeko apustua egitea apropos ikusten da.

Landa eremuan garraio publikoaren zerbitzua ere hobetu dela aipatu daiteke, nahiz eta berau oraindik ere bertako bizilagunen beharretara doitu egin behar den (geltokiak, ordutegiak,...etab.).

Barne mugimenduei dagokienez, bidegorri sare nagusia nahiko osatuta dagoela aipatu daiteke baina oraindik zati batzuk egitea falta da, bai herrigunean baita beste udalerrido guneekiko ere.

Azken urteetan mugikortasunaren esparruan hobekuntzak eman direla ikusten da eta horrela jarraitzeko, plangintza eguneratu bat izatea beharrezkotzat jotzen da, indarrean dagoena nahiko zaharkituta baitago. Lehenengo pausu bezala egungo egoeraren diagnostiko bat egitea egokia izango litzateke, egungo ahulezi nagusiak non dauden hobeto ezagutu eta konpontzeko neurriak identifikatzen hastearren.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udaltzako 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko onartu eta onartu Udalaren idazkariak,

4.3. HONDAKINAK

Hondakinen prebentzioa eta ekonomia zirkularra


2020 urtera begirako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana-rekin lerrotatuz, hondakinen esparruan norabidea aldatzeko beharra dago ekonomia zirkularraren bidean.

Ekonomia zirkular baterantz egiteko, hondakinen sorkuntza gutxitzea beharrezkoa da eta ildo horretan, udalak hainbat ekimen bultzatu ditu, horien artean, bigarren eskuko azokak edo auzokonpostaren aldeko apustua daudelarik. Gaur egun, 200 familia inguruk auzokonposta guneak erabiltzen dituzte eta helburua kopuru hau mantentzea izango litzateke, kalitate oneko konposta bermatuz.


Honekin batera, ildo honetan jarraitzeak birziklapena eta berrerabilpena areagotzea eskatzen du, erraz birzikla daitezkeen edo berriz erabil daitezkeen material berriak erabiltzea sustatuz.

Gaikako bilketaren emaitzak hobetzeko sistema berria

Hondakinen sorrera gutxitzen doa eta gaikako bilketak goranzko joera darama, Gipuzkoako batez besteko datuetatik hurbil. Datuak beraz, positibotzat har daitezke, baina Udalak 2025. urtera begira gaikako bilketa %70ra iristea daukan helburura iristeko sentsibilizazio lanari bultzada handia emateaz gain, herritarrengan ohitura aldaketak sustatzearen, beste motatako aldaketak ere beharrezkoak dira.



Iturria: Urola Erdiko Mankomunitatea



Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela, Udalaren idazkariak,

Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA

2017an hondakinen bilketa sistema aldatuko da. Hiru ardatz nagusi bereizten dira jarraian zehazten diren ezaugarriekin:

- **INDUSTRIA:** eskualdeko industriek sortzen dituzten hondakinen inguruko azterketa bat egin da. Hemendik abiatuta, atez ateko bilketa sistema bat diseinatu da eta abian jarriko da. Bost frakzio ezberdin jasoko dira: kartoia, egurra, errefusa, inguratzaileak eta gainontzeko plastikoak. Organikoa eta ontzi arinak edukiontzi irekien bitartez jasoko dira.
- **MERKATARITZA:** saltokiak sor ditzaketen hondakinen eta sortzen duten hondakin kantitatearen arabera sailkatu dira. Sailkapen honen arabera sortzaile batzuei hondakinak atez-ate jasoko zaizkie.
- **HERRITARRAK:** Hondakin organikoak eta errefusa jasotzeko edukiontzi itxiak jarriko dira, txartel baten bitartez ireki ahal izango direnak. Gainontzeko frakzioen bilketa edukiontzi irekien bitartez egingo da.
- **LANDA EREMUA:** ekarpen eremuak jarri dira.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



4.4. ZEINTZUK DIRA ESPARRU HAUETAN DITUGUN ERRONKA NAGUSIAK?

- **Mugikortasunak pisu handia dauka BEG emisioetan eta gai horri gogor heldu beharko litzaioke:** garraio publikoan hobekuntzak egiten jarraitzearekin batera, mugikortasunaren ereduan aldaketa handiagoa izan dadin, auto elektrikoaren aldeko apustu sendoa egitea ere ezinbestekotzat jotzen da
- **Klima aldaketak eraginda udalerriak jasan ditzakeen inpaktuak murrizteko neurriak hartzen joan beharko litzateke.** Nahiz eta oraindik azterketa eta plan zehatzik ez dagoen, uholde arriskua inpaktu nagusienetarikoa bat dela aipatu daiteke. Horren aurrean, beste neurrien artean, udala drainatze sistema iraunkorrak bultzatzen has daiteke, luraren inpermeabilizazioak sor ditzakeen arazoak murrizteko.
- **Hondakinen prebentzioan lan egiten jarraitzea.** Horretarako, osagarriak diren ildo ezberdinak jorratu behar dira, luzera begira, sorkuntzaren araberako tasak ezartzearen bidea hartu beharko litzatekeelarik.
- **Hondakinen bilketarako sistema berria martxan jartzea.** Hondakinen bilketarako sistema berriak aldaketak eskatzen ditu, bai operatiboak (edukiontzien berrantolamendua, adibidez), bai herritarren eta sektore ezberdinen ohitura aldaketekin zerikusia dutenak ere, horretarako informazio zehatza eta formazioa ezinbestekoak izango direlarik.
- **Energia eredu berriranzko pausuak ematen jarraitzea,** horretarako Udal Energia Planak eta Eskualdeko Energia Planak zein norabidea jarraitu beharko litzatekeen zehazki definitzen dutelarik.
- **Azpeitia mendiz inguratuta dagoen arren eta orokorrean udalerri "berdea" ematen duen arren, hirigunean berdegune falta nabarmena da.** Espazio publiko zein pribatuen berdatzearekin, hainbat onura lortuko lirateke, horien artean hiri-biodibertsitatea areagotzea eta bero boladetan tenperatura jaitea aipatu daitezkeelarik.
- **Ibaia iri aurpegia ematen hastea.** Lurraldeko beste udalerrietan gertatu den bezala, duela urte gutxira arte, ibaia ez da aisialdirako aktibo bat bezala hartu, batez ere ibaien kutsadura maila altuagatik. Egoera hau guztiz aldatu da eta ibaien uraren kalitatea hobetzearekin batera, gaur egun udalerri askok berau ardatz nagusi bezala hartzen hasi dira. Azpeitian ere, ibaiak aisialdirako aukera handiak ematen ditu eta pixkanaka, udalerria Urolari aurpegia ematen hasi beharko litzateke.
- **Behetik goranzko prozesuak bultzatzea eta administrazioa eredu izatea.** Azpeitian antolatuta dagoen mugimendu sozial garrantzitsua dago eta dinamika hau ondo aprobetxatzen jarraitu beharko litzateke hainbat politiken diseinu eta ezarpenean. Horrekin batera, orokorrean esparru guztietan gertatzen den

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiolako, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



bezala, ingurumenarekin lotutako gaietan, udalak lehenengo pausua eman beharko luke, jarrera eredugarria hartuz.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau “Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa” dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko onartu zuela. Udalaren idazkariak,



Egungo

beharrei

erantzuten

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau “Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa” dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



5

2025 urtera begirako ikuspegia eta xedeak

5.1. HONA HEMEN IKUSPEGIA


Azpeitia 2025 Plana udalerriko **IKUSPEGI** orokor batetik sortzen da, etorkizuneko Azpeitia islatzen duena, lerro bakoitzean dauden ekintzekin norantz aurreratu nahi den jasotzen duena. Hortik abiatuta, Plana "**Lerro Estrategiko-Programa-Ekintza**" eskema jarraituz egituratzen da.

Ikuspegia, 2013an egindako prozesuan definitu zen, modu parte-hartzailean, udala eta udalerriko eragile sozial eta ekonomiko ezberdinak elkarlanean. Eguneraketa prozesu honetan, ikuspegia berriz mahai gainean jarri da, berau aztertu egin da eta indarrean diharduela erabaki da.

2025ean Azpeitia udalerrri euskalduna, zoriontsua eta baikorra da, kultur dinamikan erreferentea. Sektore oro eta ingurumenaren aldeko apustu irmoa egin du, parekidetasuna eta justizia sozialaren alde eginez.

Azpeitian enplegua eta bizilagunen ongizatea hobetu dira, hezkuntza-maila eta garapen profesionalarekin batera. Mugikortasun arloan ere, aurrerapauso handiak eman dira, honekin guztiarekin bizi-kalitate hobea lortuz.

Herritarrek udal politikan aktiboki parte hartzen dute, guztion udalerrria eraikiz eta elkarbizitza ezin hobera iritsiz.



5.2. HAUEK DIRA XEDEAK

Planak helburuen arabera kudeaketa logikari erantzuten dio, udalerriko egoera orokorraren hobekuntza lortzeari zuzendutako kudeaketa moduari, eta honek neurgarria eta kuantifikagarria izan behar du. Horretarako, **xede** batzuk ezartzea beharrezkoa da.

2013an, Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa definitu zenean, xede batzuk ezarri ziren. Eguneraketa prozesu honetan euren segimendua egiteaz gain, xede guztiak aztertu dira eta aldagai ezberdinak kontutan izanda (ezarritako helburua, kalkulua egiteko zailtasunak, kontutan hartu ez ziren gaiak...), moldaketa bat egitea adostu da:

XEDEA	ZER ADOSTU DA?	ARRAZOIA
Langabezia-tasa Gipuzkoako batez besteko baino baxuagoa izatea	Kentzea	Langabezia-tasa neurtzeko beste xede bat dago eta egokiagoa da
Garraio publikoz egiten diren joan-etorriak %30 izatea	Garraio publikoaren erabilera %25ean handitzea (2016 urtearekiko)	Aurrekoa neurtzea oso zaila da
Euskararen kale-erabilera egungo baloreetan mantentzea	Xede berri bezala sartzea	Aurreko prozesuan ez zen aintzat hartu

Moldaketa hauek egin ondoren, jarraian 2025 urtera begira indarrean dagoen xedeen zerrenda aurkezten da:

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



XEDEA	2012KO DATUA	2016KO DATUA
Establezimenduen kopurua Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik mantentzea	Azpeitia: 93,2 enpresa/1.000 biztanleko Gipuzkoa: 89 enpresa/1.000 biztanleko	87,4 enpresa/1.000 biztanleko (AZPEITIA) 84,9 enpresa/1.000 biztanleko (GIPUZKOA)
Langabezia-tasa %5 izatea (krisi aurretiko datua)	%13 inguru (2012. urtea)	%10,1 (AZPEITIA 2016ko abendua) %11 (GIPUZKOA 2016ko abendua)
Asistentzia eskatzen duten 3. adineko pertsonen %100ei dagokion irtenbide/baliabidea eskaintzea	-	-
Etxebizitza hutsak dauden etxebizitza parke osoaren %10 baino gutxiago izatea.	%16,5 (2011. urtea)	%12,7 (2016)
Biztanleriaren %70ak derrigorrezko bigarren hezkuntza edo maila altuagoko ikasketak edukitzea (lanbide, erdi edo goi-mailako hezkuntza)	%52,5 (2010. urtea)	%61 (2016)
Hiri hondakinen birziklapen tasa %70 izatea	%27,5 (2011)	%41,3 (2016)
Hiri hondakinen sorrera 1 kg/bizt/egun izatea lortzea	1,2 kg/bizt/egun (2010)	1,09 kg/bizt/egun (2016)
Udalerriko BEG emisioak 2010ari dagokionez %20an murriztea (industria kontutan hartu gabe)	77.413 bCO ₂ t (2010)	74.820 bCO ₂ t (2015) ▼%3,35
Energia berriztagarrien ekoizpena bikoiztea	59,7 kWh/bizt (2010)	104,5 kWh/bizt (2013)
Banaketa-sareko galerak uraren kontsumo osoaren %15aren azpitik egotea	%20 (2012)	%13,84 (2015)
Garraio publikoaren erabilera %25ean handitzea (2016 urtearekiko)	541.603 (2012)	1.253.035 (2016)

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak, Azpeitiko Udala

6

2013-2020

Ekintza Plan eguneratua

6.1. EKINTZA PLANAREN EGUNERAKETA ZENBAKIETAN

Ekintza Planaren eguneraketa prozesua sakona izan da, eta hainbat aldaketa egin dira, hemendik 2020 urtera arte Plan tresna baliagarria izan dadin. Egindako aldaketak ondorengo lau kategoria ezberdinetan sailkatzen dira:

Ekintza birformulatuak	Ekintzaren irismena edo helburua aldatu da eta bere formulazioan aldaketak egitea eskatzen du
Ekintza berriak	Orain arte aintzat hartu ez den edo sortu berri den behar bati erantzuten dion ekintza
Ekintza bikoiztuak	Bi (edo gehiago) ekintzek helburuak partekatzen dituzte eta urteroko ebaluazioetan, euren gauzatze-maila neurtzeko jarduera berdinak jasotzen dira.
Kendu daitezkeen ekintzak	Gaur egun zentzurik ez duen ekintza, orokorrean hasi gabe dagoena edo, hasita badago, ezer gutxi egin dena berau aurrera eramateko.

Honekin guztiarekin eta lau kategoria hauek aintzat hartuta, jarraian moldatutako ekintza kopurua zehazten da:



Honetaz gain, **lerro estrategiko bat eta 7 programa** moldatu dira.

Jarraian, Ekintza Plan berria aurkezten da:

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	BETETZE-MAILA	EGUNERAKETA MOTA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
1. LERRO ESTRATEGIKOA:						
1.1. Programa: Udaltzetik garapen ekonomikoa eta enplegu arloaren sustapen eta kudeaketa propioranzko bidea lantzen hasi, progresiboki, beharrezkoak diren bitartekoak bermatuz eta inguruko hausnarketara prozesua abiarazi						
1. LERRO ESTRATEGIKOA: AZPEITIAKO ENPRESA SAREAREN LEHIAKORTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATU, UDALERRIAREN ESTRATEGIKOAK DIREN ARLO EZBERDINAK BULTZATUZ ETA ENPLEGUA SORTUZ	1.1.1	Azpeitiko Udalak datoen urtean ekonomia arloan aurrera eraman nahi duen politikaren inguruko hausnarketa prozesua abiarazi	Hasita		Alkateza	
	1.1.2	Udalarekiko aurrekontuaren udalerriaren garapen ekonomikora bideratutako partida edota ekarpenak egonkortu eta beharrien arabera urte urte egokituaz joan	Hasita		Alkateza	
	1.1.3	Udalarekiko arlo honetan dituen baliabide propioak (Azpeitia Lantzen), zein partekaturiko baliabideak (baliarako Garapen Agentzia) optimizatu, ekimen ezberdinak aurrera eramateko Amaitzen bikoizteta ekiditeko ahalegin berezia egin			Alkateza	
	1.1.4	Eskualdeko eragile sozioekonomiko ezberdinen artean egitura amankomun bat eratzea bideratutako prozesua abiarazi			Alkateza	Iraurgi Berritzen
	1.1.5	Eskualde mailan zein udal mailan ekonomiaaren sustapenaz arduratzen diren entitateak ezagutarazi		Berria		Iraurgi Berritzen
1.2. Programa: Nekazaritza jardueren sustapen eta babestutako baliabide ekonomikoko bezala						
	1.2.1	Baserrien mahaia dinamizatzea eta baserrien elkartea eratze aldeko prozesua bultzatzea	Hasita	Biformulatuta	Alkateza	Urkome
	1.2.2	Herriko baserriari laguntzeko ekimen zehatzak burutu	Aurreratu		Alkateza	Urkome
	1.2.3	Lehen sektorearen ondorengotza sustatu, gazteak nekazaritza mundura erakartzea eta etorkizuneko auzo bezala ikus dezaten	Hasita		Urkome	Alkateza
	1.2.4	Udalaren produktu ekologiko, selektu eta labeladun ekoizpena sustatu eta euren merkatatzea eratzeko laguntza eskaini	Hasita		Urkome	Alkateza
	1.2.5	Nekazaritza jardueren nekazaritza jardueren osagarri bezala, aldi berean turismo arloko ostatu eskaintza indartu	Hasita		Alkateza	Iraurgi Berritzen / Urkome
	1.2.6	URKOME-ren 2014-2020 Plangintza berria Azpeitiko udalaren parte-hartza aktiboa bultzatu, udalarekin sustatzen diren ekintzak eskualde mailako politikekin koordinatu eta bat elor daitezkeen Aurreratuak ziurtatzeko			Alkateza	Urkome
1.3. Programa: Herriko sektore tradizionalak indartu eta lagundu udalaren ekonomia motor bezala sektore indusrialari arreta berezia eskainiz						
	1.3.1	Udalarekiko jardueren ekonomia inbertitazio egitea	Hasi gabe	Biformulatuta	Iraurgi Berritzen	
	1.3.2	Herriko enpresa txikiak bultzatu eta lagundu, udalerriaren krisiak gehien eragin dien sektoreei arreta berezia eskainiz	Aurreratu		Iraurgi Berritzen	
	1.3.3	Enpresa haztegi zerbitzu bat eskaini azpeitiarrei, udalaren esku dauden lokal hutsak horretarako gaituz	Hasita		Iraurgi Berritzen	
	1.3.4	Herriko enpresa txikiak bultzatu eta lagundu, udalaren krisiak gehien eragin dien sektoreei arreta berezia eskainiz	Aurreratu		Iraurgi Berritzen	
	1.3.5	Enpresen dibertsifikazioa eta berrikuntza prozesuak bultzatu	Aurreratu		Iraurgi Berritzen	
	1.3.6	Iraurgi Berritzen burutzen diren ekimen eta programa ezberdinak Azpeitiko enpresa eta langileen parte hartzea bultzatu eta lagundu, ekimen hauen difusioa eta zabalikundea burutuz	Aurreratu		Iraurgi Berritzen	

Eginbidea:

Jasota

gera

dadin

agiri

“Azpeitia

2025

Plan

Estrategik

dokumentu

eguneratuaren

espedient

dagokiola,

eta

Udalbatzak

201

abenduaren

12an

egin

dako

bilku

behin

betiko

izaeraz

onatu

zuz

Eginbidea: Jasota gero dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	BETETZE-MAILA	EGUNERAKETA MOTA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
1.4. Programa: Herriko merkataritza biziberritu eta kontsumoaren kanpora ihesa ekidin						
1.4.1	Herriko jendea sentibiltzatu herrian bertan eros dezan, Bertan Bizi Bertan Erosi! Lemapean	Aurreratuta		Alkatetza	Bertan	
1.4.2	Azpeitia bartelaren promozioa egitea, herri-kontsumoa bultzatuz			Berria	Bertan	
1.4.3	Herriko auzo ezberdinetako merkataritza biziberritzeko ekimenak abiarazi	Aurreratuta		Birformulatuta	Bertan	
1.4.4	Sektorean asoziazionismoa bultzatu	Hasita		Alkatetza	Bertan	
1.4.5	Sektorearen modernizazioa eta profesionalizazioaren sakondu prestakuntza eta kalitate programen bidez	Aurreratuta		Alkatetza	Bertan	
1.4.6	Azpeitia eta Azkoitiko Merkataritza Elkartek, Golemitiko Dinamizazio Bulegoa eta Iraurgi Berritzenen arteko koordinazioa eta elkarlana areagotu, baliabideak eta lana partekatu, sinergiak biltu eta Hasita			Alkatetza	Bertan	
1.5. Programa: Turismo arloa landu garapen ekonomikorako aukera bezala						
1.5.1	Jardura turistikoan zerikusia eta inplikazioa duten eragile guztiak identifikatu eta berauen arteko koordinazioa bultzatu lanerako garaian, sinergiak biltu, duplizazioak ekidin eta efizientzia Aurreratuta			Alkatetza / Iraurgi Berritzen	Turismo bulegoa	
1.5.2	Basazabal Jauregia eraberritu Turismo jarduerarako bideratzeko.	Amaitzen		Birformulatuta	Iraurgi Berritzen	Alkatetza
1.5.3	Azpeitiko Turismo jarduera zentrua martxan jarri Basazabal Jauregian	Hasita		Birformulatuta	Iraurgi Berritzen	
1.5.4	Dagoen turismo arloko ostaluen hutsunea estaltzera bideratuta ekintzailatza sustatu eta lagundu	Hasi gabe		Alkatetza	Iraurgi Berritzen	
1.5.5	Sektorearen modernizazioa eta profesionalizazioaren sakondu prestakuntza eta kalitate programen bidez	Hasita		Iraurgi Berritzen		
1.5.6	Eskualdeko Turismo Mahaian eta Mahai sektorialetan Azpeitiko udalaren eta turismo arloko enpresen parte hartzea indartu	Hasita		Alkatetza		
1.5.7	Turismo kulturalaren arloko eskualde mailako Plan lantzeko garaian, arlo honetako eskualdeko erreferente nagusi bezala, Azpeitiko udalaren lidargia bultzatu	Hasi gabe		Alkatetza	Iraurgi Berritzen	
1.6. Programa: Egoerarik zailenetan dauden gizataldeei lan merkataritza erraztu eta talentu ihesa ekidin enplegua sortuz						
1.6.1	Lan merkaturu integratzeko zailtasunik handienak dituzten taldeen enplegu aukerak hobetu, beraien kualifikazio maila hobetuz eta eskualdearentzat interes estrategiko handiena duten Hasita			Alkatetza	Iraurgi Berritzen	
1.6.2	Talentu ihesa ekiditeko eskualde mailan buntzen diren ekimenak indartu	Hasita		Iraurgi Berritzen		
1.6.3	Emakumezkoen artean lan prekaritatea eta ezegonkortasuna murrizten saiatu	Hasita		Alkatetza	Iraurgi Berritzen	
1.6.4	Enplegua modu aktiboan bilatzeko langabe, edo enplegua hobetu nahi duten langileei, arreta espezializatua eta baliabideak eskaini lan-bilaketan lagunduz (Enplegu eta orientazio zentrua)			Berria	Iraurgi Berritzen	Alkatetza

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udaltzatzen 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udaltza idazkariak



Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udaltzaz 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak,



LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	BETETZE- MAILA	EGUNERAKETA MOTA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
	1.6.5	Enplegu eta Prestakuntza programak diseinatu eta garatu (Hazian, Txeriatu eta Lanzuuz Programak)		Berria	Iraurgi Berritzen	Alkateza
	1.6.6	Urola Erdiko eragileekin elkarlanean, enplegu arloko informazioa eta eskaintza bateratua eta eguneratua jaso, heriltan eskura jarri (www.urolanprest.eus)		Berria	Iraurgi Berritzen	Alkateza
	1.7. Programa: Ekintzailerak eta lan aukera berriak sustatu					
	1.7.1	Ekintzailerak sustatzeko plan onkor bat abiarazi	Aurreratua		Iraurgi Berritzen	
	1.7.2	Eskaideko sektore estrategikoetan (balio erantsialtua sortzen dutenak) eta emergenteetan (hirugarren adinari laguntza, energia berntegariak, teknologia berriak ...), enplegu berrien Hasita sortzea sustatu eta lagundu	Hasita		Iraurgi Berritzen	
	1.8. Programa: Enpresa sarean jasangarritasun eta berdintasun baloreak sustatu eta ingurumen arloko hobekuntzak bultzatu					
	1.8.1	Enpresek ekofizientziako proiektuetan parte har dezaten asistentzia teknikoa eta laguntza eskaini	Hasita		Iraurgi Berritzen	Ingurumena
	1.8.2	Udalaren enpresen artean jokabide arduratsua sustatu eta hedatu merkatuan duten irudia hobetzeko	Hasita		Iraurgi Berritzen	Ingurumena
	1.8.3	Enpresetan jazarpen serbistari aurre hartzeko ballabideak eskaini, jazarpen protokoloen diseinurako asistentzia teknikoa eskaini	Hasi gabe		Parekidetasuna	
	1.8.4	Enpresek berdintasun planak onartu ditzaten asistentzia teknikoa eskaini	Hasi gabe		Parekidetasuna	
	2.1. Programa: Gizarte Zerbitzuen egitura eta euren irudia indartu					
2. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRITARREN ONGIZATEA ZIURTATU ETA BIZI-KALITATEA HOBETU, TALDE EZBERDINEI OINARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA AHALBIDERATUZ ETA ETXEBIZITZA POLITIKA SOZIALA SUSTATUZ	2.1.1	Gizarte Mahaia sortzeko aukera aztertu	Anaitua		Gizarte zerbitzuak	
	2.1.2	Boluntario lana bultzatu eta indartu (sentsibilizazioa) udalarekin elkarlanean ekintza ezberdinak bultzatzea ahalbidertuz	Hasita		Gizarte zerbitzuak	
	2.1.3	Gobernuz kanpoko erakunde eta elkarteak diruz-laguntzen jarraitu	Aurreratua		Gizarte zerbitzuak	
	2.1.4	Gizarte zerbitzuak biztanleei hurbildu: bertatik eskaintzen diren zerbitzu eta programa ezberdin guztien inguruko informazioa eskaini eta euren irudia indartu	Aurreratua		Gizarte zerbitzuak	
	2.1.5	Udaleko Gizarte Zerbitzuak Ballarako Gizarte Zerbitzuetako maparen arabera egokitu eta berranbiolatu		Berria	Gizarte zerbitzuak	Alkateza
	2.1.6	Gizarte zerbitzuak jasotzeko heritarren eskubide subjektiboa bermatu ahal izateko Udal Gizarte Zerbitzuetan beharrezko egokitzapenak egitea		Berria	Gizarte zerbitzuak	Alkateza
	2.2. Programa: Hirugarren adinekoen eta menpekotasuna duten biztanleen bizi-kalitatea hobetu, hauei bideratutako zerbitzuak egokitu eta areagotuz					
	2.2.1	Hirugarren adineko pertsonen inguruko zerbitzuak berregituratu, filosofia aldatuta bat bultzatu eta zerbitzu integratu bat eskaini	Hasita		Gizarte zerbitzuak	
	2.2.2	Egokita mota ezberdinen eta eguneko zentzoren eskaintza egokitu eta euren okupazio mailak optimizatzeko ahalgina burutu	Hasita		Gizarte zerbitzuak	

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	BETETZE-MAILA	EGUNERAKETA MOTA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Eginbidea: Jasota geroa dadin agiri hau "Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa" dokumentu eguneratuaren espedienteari dagokiola, eta Udalbatzak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran behin betiko izaeraz onartu zuela. Udalaren idazkariak.	2.2.3	Adineko pertsonak euren etxeetan eta gizarte eta famili inguruan mantentzeko zerbitzuak eskaintzen eta indartzen jarraitu	Aurreratuta		Gizarte zerbitzuak	
	2.2.4	Hirugarren adinaren zaintzarekin eliazionaturiko prestakuntza programa sustatu herriarren (eta langabetuen) artean	Aurreratuta		Gizarte zerbitzuak	
	2.2.5	Zahartze aktiboa bultzatu, 3. adinekoen ikuspegia eta beharrak aisialdiaren antolaketan eta eskaintzan kontutan hartuz	Aurreratuta	Biforumulatuta	Gizarte zerbitzuak	
	2.2.6	Belaunaldi ezberdinen arteko foroak edota elkarguneak sustatu	Hasita		Gizarte zerbitzuak	
	2.2.7	Biztanleria heldua eta adinekoa teknologia berrien erabileran prestatu	Hasita		Gizarte zerbitzuak	
	2.2.8	Adineko biztanleriaren artean dagoen birotasun egoerari helitzeko beharrezko neurriak abian jarzea		Berria	Gizarte zerbitzuak	
	2.2.9	Azterketa demografiko bat egitea zeinak etorkizunera begirako beharrak modu zehatzean aurreikustea ahalbidetuko duen		Berria	Gizarte zerbitzuak	
	2.2.10	Pisu tuteiatuen beharra asetzea		Berria	Gizarte zerbitzuak	
	2.3. Programa: Udalerriko, haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko eskaintza zabaldu eta herritarrei egien dugunaren berri eman					
	2.3.1	Udalerriko gazteei zubi-lana sustatzea	Hasi gabe	Biforumulatuta	Gazteria	
	2.3.2	Gazteria Sailean eta zerbitzu elan egiten den eskaintza indartu	Aurreratuta	Biforumulatuta	Gazteria	
	2.3.3	Haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko zerbitzu elan erabilizaille berriak erakari	Aurreratuta	Biforumulatuta	Gazteria	
	2.3.4	Gazteria Sailean egiten den guztia berri azpeitiarrei zein beste herriarrei eskaini asmoz, web gune berri bat eratu, egiten den guztia buruzko informazioa euren eskura jarri	Hasi gabe		Gazteria	
	2.3.5	Gizarte Zerbitzu elatik esku-hartze psiko-sozialeko programa indartu	Aurreratuta		Gizarte zerbitzuak	
	2.3.6	Adin bikikoak eta gurasok interneteko sare sozialen erabileran prestatu eta hauekin lotutako arrisku edo arazoak ohartarazi	Hasita	Biforumulatuta	Gazteria	Gizarte Zerbitzuak
